

KALITATE ETA INGURUMEN POLITIKA

Aita Menni irabazi asmorik gabeko erakunde asistentzial bat da, 1898an sortua, Ahizpa Ospitalarioen mendekoa, eta bere jarduera pertsonen harrera, asistentzia eta osasun integralaren zaintza da, osasun mentaleko, desgaitasun intelektualeko, kalte zerebraleko eta adineko pertsonentzako lau zerbitzu ildotan, arreta berezia emanez behar gehien duten pertsoneri, eta gure pazienteengan osasunaren balioa eta emaitzak sortzea bilatuz, pertsonan oinarritutako arreta eredu baten esparruan.

Gure Misio, Ikuspegi eta Balioen konpromisoei erantzunez, eta horiek betetzeko, **Antolamendu eta Kudeaketa eredu** bat landu dugu, kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemen printzipioak jasotzen dituen, horien bidez bermatzen baita legezko baldintzak eta araudiak betetzen direla, **oinarrizko helburu** hauek lortzea ahalbidetuz:

- **Gure prozesuen etengabeko hobekuntza eta eraginkortasuna sustatzea**, alde interesdunen behar eta itxaropenei erantzunez
- Gure asistentzia eredu eta kudeaketa prozesuak **garatzen eta berritzen** laguntzea
- **Kalitatearen eta pazientearen segurtasunaren** ikuspegi integrala, artatutako pazienteen profilen arrisku espezifikoak kudeatzeko sistema bat garatuz
- **Kutsaduraren prebentzioan, ingurumenaren babesean eta klima aldaketaren aurkako borrokan laguntzea**, batez ere jarduera hauen bidez:
 - energia efizientzia, ingurumen kudeaketa arduratsu baten bidez, bai gure zerbitzuak ematean, bai gure zentro eta instalazioak mantentzean
 - hondakinen eta emisioen bolumena eta inpaktua murriztea, hondakinen kudeaketa kontrolatu eta eraginkor baten bidez

Aita Menniko Zuzendaritza Taldeak Politika hau gidatu, bultzatu eta mantentzeko konpromisoa hartu du:

- helburuak ezartzeko eta berrikusteko **erreferentziazko esparru** gisa.
- hori betetzeko beharrezkoak diren **baliabideak** jarritz.
- laguntzaile eta paziente/erabiltzaileen eta komunitate ospitalarioko kide guztien **parte hartzea eta inplikazioa** egituratuz eta sustatuz.

Arrasate, 2024ko martxoa



Mikel Tellaache
Zuzendari gerentea



Isabel Martinez
Ahizpa Nagusia